

«TUPA» REKIN

TXILLARDEGI

Oraindik ere oroitzen da irakurlea segurki: «Tupa-Otaegi-askatu»... Gogoan daukat oraindik Irailaren 27-ko gau hura, osoa esnai pasata... 1975-ko udazkena hasi berria zen. Eta ni neu, Euskadiko beste mila eta ehun mila bezala, han egon nintzen lorik ezin harturik, Paredes eta Otaegi betirako kenduko zizkiguten eguntsenti garratzaren zai. Gu han ginen, Behobia eta Béhobie berezten dituen zubi madarikatuaren ondoan. Eta han zeuden gurekin, beila luze eta etsian, Errekart Hendaia-ko alkatea eta kontzejalik gehienak; eta han ere «deserriturik» bizi ginen Hegoaldeko abertzaleak, ehunka; eta ipartarrak ere hantxe genituen, lagun. Gau luzea, zinez; tarteka baizik ez laburtua: «Gora Euskadi Askatuta!»... «Hijoputas!»... oihu lazarrietan hebin eta berriz. Ezin ezer egin! Eta biharamunean, goiz goizik, berri lazarria heldu: «Txiki eta Otaegi hil dituzte»...

Irailaren 27-ko goiz hartan bertan, ordea, hantxe zegoen, heriotzaren zai, bera ere garbituko zuten etsia, gure Jose Antonio Garmendia, askoz ere gehiago «Tupa» deitua. Zelda berezi horietako batetan zegoen hil zai; komutazioaren berririk ez baitzuen Tupak goizeko 6-30-ak arte izan! Sinetsi ezina gertatu: arratsaldean ikasi zuenez, Txiki eta Otaegi afusilatua; eta bere ez.

Hilabete ezin luzeagoa Tupa-rentzat Iraileko hura: 1975-ko Abuztuaren 28-an entzun baitzuten beren kontrako heriotzaren Burgos-en Tupak eta Otaegik...

Eta azken mementora arte hil beharra zen Tupa hura, bizirik dugu, geure artean dugu; dexente ahaztua, ordea, beste anitz abertzale bikain bezala.

Nik ez nuen «erori» aurreko Tupa hura ezagutu. Hendaia aldean ibili bide zen batzutan, politzitik ihesean. Egia esan ez nuen orduan ezagutu.

PUNTO y HORA: *Eta zertan ari haiz orain? Zer moduz bizimodu hori Donostia alde honetan?*

TUPA: Hementxe bada. «Reedukazio» delakoan ari nauk, eta hemen egon behar. Baina ahal bezain laister, etxe aldera niak, Abaltzizketa aldera. Hemen itota bezala negok: dena beteta, dena kez eta usainez... Besterik duk Abaltzizketa-ko pakea...

Buruminak agerian utzi zizkion balak, izugarriro moteldu omen du Tupa. Lehen askoz ere biziagoa omen zen, eta ikaragarri azkarra. Orain erreflejoen mailan nabaitzen omen du zauri ikaragarri haren aztarna: pentsatu ongi egin bai, baina besoak eta hankak mogitzerakoan, halako nagitasun apur bat. Hamabost egunez koman egon ondoren, harritzekoa ez da. T.: Ikutu zak hemen!

Eta hortxe dira, agerian, bala sartu zen zulo-aldearen marka, batean; eta irten zen zulo-aldearen marka, handik zentimetro batzutura.

T.: Nere burumuinak hortik isuri eta irtingo ote ziren beldurrak denak, medi-

kuak barne... Eta garunen parte oso bat galduta, hondatuta. Orain berriz, reedukazio hori dela-ta, burumuin beste parte bat hasi omen duk lanean; eta horri esker mogi zitzakeat orain eskuak eta gainerantzekoak. Baina luzaz perlesiak jota bezala egondu nauk.

P.H.: *Hitz egin behintzat, ederki hitz egiten duk. Diferentziarik edo nabaitu ahal duk horretan?*

T.: Euskaraz ari naizenean, ez. Baina erdaraz, beharbada bai; beharbada motelago ibiltzen nauk.

P.H.: *Abaltzizketako batek euskaraz mintzatu nahiago izatea ez duk miresgarri. Baserriarra haiz?*

T.: Bai, horixe. Herriaren ondo ondoan dagoen «Altunetxe» baserriko sementa nauk, 1951-an jaioa. Handik kaldereria ikastera joan ninduan Goiherriko Eskola profesional delako horretara, Beasain ondokora; eta hantxe ikasi nion ofizioa, lehenengo lana Anoeta-ko «Caldereria Guipuzcoana»-enean egiten nuelarik. Hementze urte nizkian orduan.

P.H.: *Eta han luzaz egon ahal hintzen?*

T.: Ez, ez. Soldauzkara joateko garaia bazetorreen, eta nik ez nian burua horretan hain zuzen... Eta hanka egin nian.

P.H.: *«Hanka, hanka»... Zertara?*

T.: Dudarik ez zegoen neretzako, eta ETA-n sartu ninduan. 1972 urtea huan, gutxi gora-behera.

P.H.: *Bildurrik ez edo? Beste bide bat hartu behar ote huen zalantzarik ez?*

T.: Ez, ez. Eta bildurrik ere ez. Zelda berezi hartan afusilatze noiz deituko ninduten zai nengoenean ere, bildurrik ez nian senditzen. Eta ekintzetan beretan, tiroak hemendik eta handik entzuten zirenean ere, bildurrik ez nian. Sasoi ona, osasun bikaina; eta pentsatu ere ez nian egiten eroriko ote nintzen, eta abar. Baitere ez horrelakorik!

P.H.: *Memento larritatik pasa haiz, beraz?*

T.: Dudarik ez. Eta ETA-n hasi orduko ia-ia, neure lagun handia nuen «Beltza», Amezketako Etxebarria gizajoa, hil



«Tupa» aurtengo Otsailean.

huan. Ongi akordatzen nauk egunaz eta denaz: 1973-ko Azaroaren 28-an. Beti 28-a izan duk nere bizian: «Beltza»-ren heriotza-eguna, heriotza penaren eguna, dena...

P.H.: *Tirokaturik edo?*

T.: Ez. Berak zeraman bomba lehertu, eta bertan geratu huan.

P.H.: *Lehergailuak eta iskiluak erabiltzeko teknikak ikasi ez ala?*

T.: Ez, ez. ETA-ra sartzean halako ikastaldi bat egiten genian; eta ikastaldi horretan ikasi egiten genian: bai iskiluen erabilkera, bai Euskal Herriko arazoaz zerbait ere: istoria, eta beste. Etarrek normalean lan egiten zuten zere, igandetan hartzen genizkian ikastaldiok.

P.H.: *Berehala harrapatu hinduten, beraz...*

T.: Bai eta ez. Ekintza ezagun batzutan parte hartu ninduan ordurako. Esate baterako...

P.H.: *Zeinetan ere esan behar ahal duk?*

T.: Politziak erebazekik. Hortaz... 1974-ko Ekainaren 1-an, CAF-en egin zen diruebasketa famatuan ibili ninduan, esate baterako: hamalau milio, gero galduak... Hiru mila goardazobil ibili hituan gure atzetik, baina harrapatu, bat bakarrik... Beste guztiok, ihesi... Hilabete batzu lehenago Posadas-en heriotza gertatu zenean, hor ibili huan nere izena... Eta abar.

P.H.: *Eta erori, nola erori hintzen?*

T.: Donostia-ko Antiguán, tirokaldi batean... Arruabarrena nere lagunak

(«Tanke» izenez ezagunago) zazpi tiro zizkien gainean; eta nik bi: hankan bata, eta buruan bestea. Hau oso larria. Eta korderik ere gabe eraman ninduten «N. Sra. de Aranzazu» klinikara. Eta han, lehenago esan diadanez, hamabost egunez hil-ez hil-bai hartan; eta ondoriotzat buruaren kapazitatearen erdia galdurik, eta inoiz 13 urteko mutil batek baino hobeki pentsatuko ez nuela esan medikuek...

P.H.: *Eta nola joan ziren zuen bila?*

T.: Zarautz-en («Villa Deleitosa», oraindik oroitzen nauk) Gomez Acebo delakoa bizi huan. Eta Juan Carlos erregeren koinatua izanik, harrapatzeko plana izan huan. Zeharo beste arrazoin batzurenagatik, kontrolak bideetan jarri; eta gu, ezin gelditurik nabarmen gelditu, eta... tiroka, kotxean zauriturik ihes egin ondoren, eta Zarautz-tik Igeldo-raino odoletan «Tanke» iritsi ondoren, Antiguan... akabo! Baina tirokaldi harrigarrian: ez huke sinetsi ere egingo hura zer izan zen!

P.H.: *Eta handik ospitalera edo gartzelara...*

T.: Antiguako klinikara lehendabizi. Gero Madrillera, eta han lau hilabetez erabat inkomunikatuta, Eguberriak artio beraz. Eta gero Carabanchel-en eta Burgos-en beti inkomunikatuta, bederatzi hilabete luzez. Batez ere osasunez os gaizki nintzelako, oso txarrak.

P.H.: *Eta Gerrako Kontseilua?*

T.: Abuztuan, 28-an esan diadan bezala. Posadas hura nik hil nuela, eta heriotzapena; eta Otaegi gizajoa, «co-autor» zelata, heriotzapena ere bai. Zeldia ezpeziale-tara eraman, bai ni eta bai Otaegi; eta betirako agur. Bera afusilatu zuten goiz hartantxe, ni ere deitu zai nengoan.

P.H.: *Eta gero?*

T.: Caceres-ko gartzelara. Eta han ere in-



«Tupa» eta Amezketa-ko «Beltza»; handik laister bonba batek hila.

komunikatuta. Franco hila zela jakin nian halere, «komun» bati esker. Gero Ocañara, eta gero...

P.H.: *«Extrañado»?*

T.: Hori duk, bai. «Extrañado» gisa, Noruega-ra, Oslo-ra. 1977-ko Ekainaren 6-an, hara iritsi gintuan Sarasketa, Izko eta ni hirurok. Ezkerra, Wilson, Gorostidi, Larena, eta beste... «extrañaturik»... Garai hartako hitza huan!

P.H.: *Eta Noruegan luzaz?*

T.: Sei hilabetez. Oso oroitzapen ona diat Oslo; nahiz mogitzeko baimenik ez izanik ere. Noruegako gobernuak oso ondo jokatu zian gurekin.

P.H.: *Eta handik Euskadira?*

T.: Abenduaren 3-an Bilbo-ra, orain dela urtebete ta piku beraz. Eta lehenengo gauza, hau: Nuarbe-ra eta Zarautz-a. Otaegi-ren eta Txiki-ren hilobietara joatea. Handik egun batzutura ahaztu ezinezko harrera «ofiziala» Abaltzizketan. Gero, joan den udan, berriz operaturik, berriz koman hiru egunez, berriz perlesiak jota... Orain askoz hobeto.

P.H.: *Eta orain, baztertuta?* (Galdera hau egin nionean ez nekien «Zeruko Argia»n orain dela gutxi artikulu bat idatzia zuenik)

T.: Bai, noski. HB-aren alde negok, jakina; baina urrun xamarretik ikusten diat, dena dela. Orain dela sei urte, lanak izaten genizkian gordelekuak lortzeko. Orain, berriz, garai hartan kuxkurtuta bizi zirenak, berebiziko «borrokalaria» agertzen dituk, eta askontan gailen eta nagusi... Jendeak arin xamar senditzen dik gaur abertzaletasuna. Garbi ageri duk hori euskararen arazoan. Esate baterako: nola

liteke Alkain jaunak lehengoan euskarari lehenetasun osoa ez ematea?

Eta han utzi dugu Tupa famatua. Etsixamaturik agian: abertzaletasuna eskastu eta lardaskatu egin dela uste baitu Tupak.

Eta iritzi horretan ez da bakarria.

Euskal Herriaren onerazko, pizkortuko ahal da erabat gure abaltzizketar aparta!



«Tupa», Sarasketa eta Izko, Oslo-ra iristen.



«Tupa» eta Jokin Gorostidi, Oslo-tik pa-sean ari.